

15

ETXEBIZITZA

VIVIENDA

Amaia Altuzarra Artola (*)

(*) **Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultateko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**
Profesora titular de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales. Universidad del País Vasco (UPV).

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. EL PARQUE RESIDENCIAL
 - 2.1. Cuantificación del parque residencial
 - 2.2. Viviendas según su clase
 - 2.3. La antigüedad del parque de viviendas
3. CARACTERÍSTICAS DE LAS VIVIENDAS FAMILIARES
 - 3.1. La verticalidad. Número de viviendas por edificio
 - 3.2. Superficie útil de las viviendas familiares
 - 3.3. El número de habitaciones
4. LAS VIVIENDAS PRINCIPALES, SECUNDARIAS Y VACÍAS
 - 4.1. Las viviendas principales: régimen de tenencia y equipamiento
 - 4.1.1. Régimen de tenencia
 - 4.1.2. Instalaciones básicas
 - 4.1.3. Índice de hacinamiento
 - 4.2. La vivienda vacía: de temporada y deshabitadas
5. VIVIENDAS INICIADAS Y TERMINADAS
6. PRECIO DE LA VIVIENDA
7. NECESIDADES Y DEMANDA DE VIVIENDA
8. CONCLUSIONES
- BIBLIOGRAFÍA

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. BIZILEKU-PARKEA
 - 2.1. Bizileku-parkearen zenbaketa
 - 2.2. Etxebizitzak, motaren arabera
 - 2.3. Etxebizitza-parkearen antzintasuna
3. FAMILI ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK
 - 3.1. Bertikaltasuna. Eraikin bakoitzeko etxebizitza kopurua
 - 3.2. Famili etxebizitzen azalera erabilgarria
 - 3.3. Gela kopurua
4. ETXEBIZITZA NAGUSIAK, BIGARREN ETXEBIZITZAK ETA ETXEBIZITZA HUTSAK
 - 4.1. Etxebizitza nagusiak: edukitze araubidea eta ekipamendua
 - 4.1.1. Edukitze araubidea
 - 4.1.2. Oinarrizko instalazioak
 - 4.1.3. Pilatze-indizea
 - 4.2. Etxebizitza hutsa: sasoikoa eta hutsak
5. HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK
6. ETXEBIZITZAREN PREZIOA
7. ETXEBIZITZA BEHARRIZANAK ETA ESKAERA
8. ONDORIOAK
- BIBLIOGRAFIA

1. INTRODUCCIÓN

El mercado inmobiliario de la C.A. de Euskadi experimentó durante más de una década una fuerte expansión que se extendió hasta el año 2007. A partir de ese momento, comenzaron a manifestarse signos de un progresivo ajuste de este mercado que continúan en nuestros días.

La etapa de expansión inmobiliaria estuvo motivada por el crecimiento de la demanda de vivienda, impulsada por la generación de empleo, el aumento de los ingresos per cápita de los hogares, las favorables condiciones financieras y, en menor medida, por la evolución de la población. La expansión residencial, por tanto, fue resultado de la interacción de factores demográficos, sociales y económicos.

Entre los factores demográficos que afectan al mercado inmobiliario destacan dos: la evolución de la población y la estructura de edad de la población. En el periodo 1996-2007 se produjo en la C.A. de Euskadi un ligero aumento de la población del 2,1%. Por otro lado, el segmento de población propicio para la emancipación y con mayor capacidad económica, que está comprendido entre los 30 y 39 años, creció en ese periodo un 6,9%. Esta evolución demográfica estuvo acompañada por importantes cambios sociales tales como la integración de la mujer en el mercado laboral, el aumento de los divorcios, separaciones, familias monoparentales y otras formas de hogares. Estas tendencias sociales y demográficas dieron lugar a un aumento en el número de hogares. Entre 1996 y 2007 se crearon 154.925 hogares (un aumento del 15,2%). Finalmente, entre los factores económicos que afectan al mercado inmobiliario destaca la renta real disponible de los hogares. Esta variable está influida por el nivel de ocupación y el desempleo. Entre 1996 y 2007 el empleo creció en 285.767 empleos (un 39%) y la renta real disponible per cápita creció entre 2001 y 2006 a una tasa media del 3%.

Esta situación favorable cambió en el verano de 2007, cuando estalló en Estados Unidos la actual crisis financiera y económica. Esta crisis comenzó cuando en ese país se informó del aumento en el nivel de fallidos en el segmento del mercado hipotecario subprime. La amplia difusión geográfica que habían alcanzado los «productos derivados» que tenían como subyacente a estos títulos, hizo que la crisis financiera adquiriese rápidamente una dimensión global. Las restricciones en el crédito que se produjeron provocaron que el traspaso de la crisis financiera a la economía real no tardara en llegar. La economía de la C.A. de Euskadi en general, y su sector inmobiliario en particular, no escaparon a este declive económico y experimentaron, a partir de ese momento, una significativa ralentización del crecimiento.

El objetivo de este capítulo es proporcionar una descripción del estado del mercado inmobiliario y de las características de la vivienda en la C.A. de Euskadi, prestando especial atención a los cambios experimentados en el sector como

1. SARRERA

Euskal AEko higiezin-merkatua hamarkada bat baino luzarago handitzen aritu zen, 2007. urtera arte. Une horretatik aurrera, merkatu honetan egokitzapen mailakatuko zantzuak atzeman ziren, gaur arte.

Higiezin-merkatuaren hedapena etxebizitza eskaeraren gehikuntzak ekarri zuen, lanaren sorreraren ondorioz, familien per capita diru-sarreraren gehikuntzaren ondorioz, finantza-baldintza mesedegarrien ondorioz eta, neurri txikiago batean, Biztanleriaren bilakaeraren ondorioz. Etxebizitzaren hedapena, beraz, faktore demografiko, sozial eta ekonomikoen elkarreaginaren ondorio izan zen.

Higiezin-merkatuan eragina duten faktore demografikoen artean bi nabarmendu behar ditugu: biztanleriaren eboluzioa eta biztanleriaren adin-egitura. 1996-2007 denboraldian Euskal AEn biztanlerian gehikuntza txiki bat izan zen, % 2,1koa. Bestalde, emantzipaziorako prest zegoen eta gaitasun ekonomiko handiena zeukan biztanleria-zatia, 30 eta 39 urte artekoa alegia, % 6,9 gehitu zen denboraldi horretan. Eboluzio demografiko horrekin batera zenbait gizarte aldaketa garrantzitsu gertatu ziren, hala nola emakumeen integrazioa lan-merkatuan, dibortzioen gehikuntza, banantzeak, guraso bakarreko familiak eta beste familia eredu batzuk. Joera sozial eta demografiko horiek familien kopurua gehitzea ekarri zuten. 1996 eta 2007. urteen artean 154.925 familia sortu ziren (% 15,2ko gehikuntza). Azkenik, higiezin-merkatuan eragina duten faktore ekonomikoen artean, familien errenta erreal eta erabilgarria dago. Aldagai hori okupazio mailaren eta langabeziaren araberakoa da. 1996 eta 2007. urteen artean, lanpostu kopurua 285.767 lanpostutan gehitu zen (% 39) eta per capita errenta erreal eta erabilgarria 2001 eta 2006. urteen artean % 3ko batez besteko tasaraino gehitu zen.

Egoera oparo hau 2007ko udan aldatu zen, Estatu Batuetan gaur egun bizi dugun finantza eta ekonomi krisia piztu zenean. Subprime hipoteken merkatuan porroten mailaren gehikuntzaren berri zabaldu zenean hasi zen krisialdi hau. Azpian titulu hauek zeuzkaten «produktu deribatuek» lortu zuten hedapen geografiko handiaren ondorioz, finantzen krisiak dimentsio globala bereganatu zuen berehala. Kredituan gertatu ziren murrizpenen eraginez, finantza-krisia ekonomia errealeara zabaldu zen, oso azkar zabaldu ere. Euskal AEn ekonomia oro har, eta higiezinaren sektorea bereziki, gainbehera ekonomiko horren mende geratu ziren, eta une horretatik aurrera, hazkunde asko moteldu zen.

Kapitulu honen helburua higiezin-merkatuaren egoeraren eta etxebizitzak Euskal AEn dituen ezaugarriaren deskribapena egitea da, higiezinaren burbuilaren hondamenaren ondorioz sektore honetan izan diren aldaketei arreta berezia emanez.

consecuencia del pinchazo de la burbuja inmobiliaria. No obstante, es preciso apuntar que el carácter reciente de este suceso y la existencia de retardos en el comportamiento de las variables que afectan al mercado inmobiliario hace que, en numerosos casos, no existan datos suficientes para estudiar el impacto de este fenómeno. Para un determinado conjunto de variables, este Informe se ha abordado desde una perspectiva comparada a través del tiempo y en términos espaciales. El periodo estudiado abarca desde el año 2001 hasta el 2010, aunque en ciertos casos se examinará también la evolución desde periodos anteriores. Cuando se realizan comparaciones espaciales, éstas se establecen con España y las Comunidades Autónomas y con la Unión Europea y los países europeos.

Los datos utilizados son, para el caso de la C.A. de Euskadi y los territorios históricos, los difundidos a través de Eustat. Concretamente, se han usado los datos contenidos en los Censos de Población y Vivienda de 1991 y 2001, las Estadísticas de Población y Viviendas de 1996 y 2006, la Encuesta sobre Oferta Inmobiliaria, la Estadística sobre Viviendas Iniciadas y Terminadas y la Encuesta de Necesidades y Demanda de Viviendas (ENDV). Las comparaciones con España y las Comunidades Autónomas se realizan a partir de los datos publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE). En particular, se emplearán los datos proporcionados por los Censos de Población y Viviendas de 1991 y 2001. Los datos suministrados por Eurostat se emplean para establecer comparaciones con la Unión Europea y los países europeos. La Encuesta Europea de Condiciones de Vida y las publicaciones Housing Statistical Data 2004/2005 y Housing Statistical Data 2010 proporcionan la mayor parte de la información utilizada.

Halere, azpimarratu behar dugu gertaera hau orain dela gutxi gertatuenez eta higiezin-merkatuan eragina duten aldagaien portaeran izan diren berandutzen ondorioz, kasu askotan, ez dagoela datu egokirik fenomeno honen eragina aztertzeko. Zenbait aldagairen batuketaren ondorioz, txostenari ikuspegi konparatutik heldu zaio, denboran eta espazioan. Aztertutako denboraldia 2001 eta 2010. urteen artekoa da, baina kasu batzuetan aurretik ere izandako bilakaera aztertuko dugu. Espazioak erkatzen direnean, Espainiarekin eta autonomi erkidegoekin eta Europarekin eta Europako herrialdeekin egiten da.

Txosten honetan erabilitako datuak, Euskal AERen eta lurralde historikoen kasuan, Eustatek jakitera emanak dira. Zehazki, ondoko datu hauek erabili dira: 1991 eta 2001. urteetako Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuak, 1996 eta 2006. urteetako Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak, Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta, Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzetako buruzko Estatistika, eta Etxebizitzen Beharrianen eta Eskaeraren Inkesta (EBEI). Espainiarekiko eta autonomi erkidegoekiko konparazioak Estatistikako Institutu Nazionalak (EINEK) argitaratutako datuen arabera egiten dira. Zehazki, Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuak 1991 eta 2001. urteetan emandako datuak erabiliko ditugu. Eustatek emandako datuak Europar Batasunarekin eta Europako herrialdeekin konparazioak egiteko erabiltzen dira. Bizi Baldintzei buruzko Europako Inkestak eta Housing Statistical Data 2004/2005 eta Housing Statistical Data 2010 argitalpenek erabilitako informazio gehiena ematen dute.

2. EL PARQUE RESIDENCIAL

Esta sección presenta un recuento de las viviendas que componen el parque residencial de la C.A. de Euskadi y examina los periodos en los que las viviendas se han ido construyendo. El estudio de la antigüedad del parque inmobiliario, además de su interés intrínseco, permite establecer una conexión entre los periodos de expansión residencial y las etapas de desarrollo económico del territorio.

2.1. Cuantificación del parque residencial

El stock residencial experimenta cambios lentamente, tanto en cantidad como en calidad. Aunque en los momentos más expansivos del ciclo económico se tiende a construir un mayor número de viviendas, la nueva construcción suele suponer un pequeño porcentaje del stock existente. El perfil dominante en términos de calidad residencial en un determinado territorio, por tanto, cambia de manera muy gradual y siempre y cuando la nueva construcción difiera sustancialmente de las características del stock existente.

De acuerdo con la Estadística de Población y Viviendas (EPV) de 2006, el número total de viviendas¹ que forman el parque residencial² de la C.A. de Euskadi es de 981.045. De esta cantidad, 145.970 estaban localizadas en Álava, 514.255 en Bizkaia y 320.820 en Gipuzkoa. Estos territorios concentraban, por tanto, el 15%, 52% y 33%, respectivamente, del total de viviendas (ver tabla 1).

Se aprecia una evolución creciente del stock de viviendas a lo largo del periodo 1991-2006. Los aumentos varían dependiendo del periodo intercensal y del territorio histórico considerado. En el conjunto de la C.A. de Euskadi, la mayor variación en tanto por cien del número de viviendas se produjo entre los años 2001 y 2006 como consecuencia de la expansión del mercado inmobiliario. El incremento en el número de viviendas fue durante ese periodo del 11,7%, mientras que entre los años 1996 y 2001 el incremento fue del 7%, y entre 1991 y 1996 del 6%.

Evolución del parque residencial

1

Bizileku-parkearen eboluzioa

	1991	1996	2001	2006	Δ % 1991-96	Δ % 1996-01	Δ % 2001-06
Euskal AE / C.A. de Euskadi	774.780	821.107	878.600	981.045	6,0	7,0	11,7
Araba / Álava	105.883	111.453	122.464	145.970	5,3	9,9	19,2
Bizkaia	424.229	443.453	464.617	514.255	4,5	4,8	10,7
Gipuzkoa	244.668	266.201	291.519	320.820	8,8	9,5	10,1

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 1991 eta 2001eko Zentsuak; Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 1996 eta 2006ko Estatistikak. Fuente: Eustat. Censos de Población y Viviendas 1991 y 2001; Estadísticas de Población y Viviendas 1996 y 2006.

¹ Vivienda: recinto estructuralmente separado e independiente que, por la forma en que fue construido, reconstruido, transformado o adaptado, está concebido para ser habitado por personas y no está totalmente destinado a otros usos; y aquellos otros que no cumpliendo las condiciones anteriores están efectiva y realmente habitados en la época censal. Se incluyen en este concepto los alojamientos y los establecimientos colectivos.

² Parque residencial es el conjunto de viviendas familiares y establecimientos colectivos y parque de viviendas es el conjunto de *viviendas familiares*.

2. BIZILEKU-PARKEA

Atal honetan, Euskal AEko bizileku-parkea osatzen duten etxebizitzaren kopurua zenbatzen da eta etxebizitzak noiz eraiki diren aztertzen da. Higiezin-parkearen antzintasuna aztertzeak, berez interesgarria izateaz gain, etxebizitzaren hedaduraren denboraldien eta lurraldearen garapen ekonomikoko etapen artean konexio bat ezartzen laguntzen du.

2.1. Bizileku-parkearen zenbaketa

Etxebizitzaren stockak aldaketak poliki izaten ditu, bai kopuruan bai kalitatean. Ziklo ekonomikoren oparoaldietan, etxebizitza gehiago eraikitzeke joera izaten da, baina etxebizitza eraiki berriak stockaren portzentaje txiki bat baino ez dira izaten. Profil esanguratsua, lurralde jakin bateko etxebizitzaren kalitateari dagokionez, beraz, oso modu mailakatuan aldatzen da, eta baldin eta etxebizitza eraiki berrien eta aurretik dauden etxebizitzaren artean benetako ezberdintasunak badaude.

Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2006ko Estatistikaren arabera (PEE), Euskal AEn, bizileku-parkea osatzen duten etxebizitzaren kopuru osoa¹ 981.045 da². Kopuru horretatik, 145.970 Araban zeuden, 514.255 Bizkaian eta 320.820 Gipuzkoan. Lurralde honetan, beraz, etxebizitza guztien % 15, % 52 eta % 33 zeuden, hurrenez hurren (ikusi 1. taula).

Etxebizitzaren stockean goranzko eboluzioa atzematen da 1991-2006 denboraldian. Gehikuntzak zentsuen arteko denboraldiaren eta aztertutako lurralde historikoaren arabera aldatzen dira. Euskal AE osoan, etxebizitza kopuruaren gehikuntzarik handiena, ehunekotan, 2001 eta 2006. urteen artean gertatu zen, higiezin-merkatuaren handitzearen ondorioz. Etxebizitza kopuruaren gehikuntza denboraldi horretan % 11,7 izan zen, eta 1996 eta 2001. urteen artean, gehikuntza % 7koa izan zen, eta 1991 eta 1996. urteen artean, % 6koa.

Las fuentes de información utilizadas (CPV y EPV) no permiten conocer la evolución del parque residencial más allá del año 2006, por lo que no es posible capturar los efectos que la crisis del sector inmobiliario ha tenido sobre la evolución del parque inmobiliario. En las páginas siguientes (apartado 5) se examinará la evolución de las viviendas iniciadas a partir de los datos proporcionados por la Estadística de Viviendas Iniciadas y Terminadas. Esta fuente de datos no proporciona suficiente información para actualizar la cuantificación del parque residencial que se recoge en la tabla 1. Sin embargo, sí permite conocer el ritmo al cual, año tras año, se vienen incorporando viviendas nuevas al parque residencial y, por tanto, permite detectar si se ha producido un cambio en el ritmo de construcción como consecuencia de la crisis del sector inmobiliario.

Por territorios, Álava registró la mayor variación porcentual en el número de viviendas con un aumento del 19,2% entre los años 2001 y 2006 frente a las variaciones más moderadas de Gipuzkoa (10,1%) y Bizkaia (10,7%).

El gráfico 1 representa el número total de viviendas en el año 2001 y la variación porcentual del número de viviendas en España entre 1991 y 2001. El crecimiento en el agregado nacional fue del 21,6%. Aragón, Asturias, Castilla-León, Galicia y la C.A. de Euskadi registraron los incrementos más modestos. En la situación opuesta se encuentra Canarias con un incremento del 45,1%. El resto de las Comunidades presentan desviaciones relativamente bajas con respecto de la media nacional.


Erabilitako informazio-iturriek (PEZ eta PEE) ez dute ahalbidatzen bizileku-parkearen eboluzioa 2006. urtetik aurrera ezagutzeko. Horregatik, ezinezkoa da higiezin-sektorearen krisiak higiezin-parkearen bilakaeran izan dituen ondorioak atzematea. Hurrengo orrialdeetan (5. atala) hasitako etxebizitzaren bilakaera aztertuko da, Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzaren Estatistikak emandako datuetan oinarrituta. Datu-iturri horrek ez du informazio nahikoa ematen 1. taulan jasotzen den bizileku-parkearen zenbaketa eguneratzeko. Aitzitik, jakiten uzten digu etxebizitza berriak bizileku-parkean zein erritmotan sartzen diren urtez urte; horrenbestez, higiezin-sektorearen krisiaren ondorioz eraikuntza erritmoan aldaketarik gertatu den detektatzen laguntzen digu.

Lurraldeka, Arabak izan zuen etxebizitza kopuruan aldakuntzarik deigarriena, ehunekotan: 2001 eta 2006. urteen artean % 19,2ko gehikuntza izan zen. Gipuzkoako eta Bizkaiko gehikuntzak ez ziren hain handiak izan (% 10,1 eta % 10,7 hurrenez hurren).

1. grafikoak Espainiako 2001. urteko etxebizitza kopuru osoa, eta etxebizitza kopuruan 1991 eta 2001. urteen artean ehunekotan izan den aldakuntza erakusten dizkigu. Agregatu nazionalan, gehikuntza % 21,6koa izan zen. Aragoi, Asturias, Gaztela eta Leon, Galicia eta Euskal AE izan ziren gutxien hazi zirenak. Aurkako egoeran daude Kanariar Uharteak, % 45,1eko gehikuntzarekin. Gainerako probintziek desbideraketa erlatiboki txikiak dituzte estatuko batezbestekoaren aldean.

Evolución del parque residencial por Comunidades Autónomas. 1991-2001 (%)

1 Bizileku-parkearen eboluzioa autonomi erkidegoen arabera. 1991-2001 (%)



Iturria: EIN eta Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuak, 1991 eta 2001. Fuente: INE y Eustat. Censos de Población y Vivienda 1991 y 2001.

Si se atiende a los datos disponibles para los países europeos presentados en la tabla 2, se observa una importante progresión en el caso de España y de la C.A. de Euskadi en relación con el número de viviendas por cada 1.000 habitantes.

Los datos para 2001 muestran, para España y para la C.A. de Euskadi, unos valores inferiores a los que registraban numerosos países de la Unión Europea con población similar. En ese año, España contaba con 462 viviendas por cada 1.000 habitantes y la C.A. de Euskadi con 422. En el año 2006 se detecta un avance importante en este indicador, situándose en valores similares a los de otros países del entorno.

2. taulan Europako herrialdeei buruz aurkeztu diren datuak aztertzen baditugu, Espainiaren eta Euskal AERen kasuan aurrerapen esanguratsua ikusiko dugu, 1.000 biztanleko dau-den etxebizitzaren kopuruari dagokionez.

2001. urteko datuek, Espainiarentzat eta Euskal AERentzat, Europar Batasunean antzeko biztanleria zeukaten herrialde askok zeukatena baino balio txikiagoak erakusten dizkigute. Urte hartan, Espainiak 462 etxebizitza zeuzkan 1.000 biztanleko, eta Euskal AEk, 422. 2006. urtean, adierazle honetan aurrerapen garrantzitsua izan zen, inguruko beste herrialde batzuen antzeko balioetara iristeraino.

Parque residencial y viviendas por 1.000 habitantes.
Unión Europea

2

**Bizileku-parkea eta etxebizitzak 1.000 biztanleko.
Europar Batasuna**

	Bizileku-parkea (milaka) Parque residencial (en miles)	Zentsu urtea Año censal	Biztanleak 1.000 bizt (*) / Viviendas por 1.000 hab (*)	
			2000	2005
Alemania	38.925	2002	506	480
Austria	3.280	2003	405	427
Belgika / Bélgica	4.820	2004	390	444
Danimarka / Dinamarca	2.561	2003	479	490
Eslovakia / Eslovaquia	1.885	2001	310	317
Espainia / España	20.947	2001	462	526
Finlandia	2.574	2002	494	517
Frantzia / Francia	29.495	2002	490	509
Polonia / Polonia	11.764	2002	307	335
Portugal	5.318	2003	482	523
Suedia / Suecia	4.351	2003	482	487
Euskal AE / C.A. de Euskadi	981	2006	422	461

(*) 2000. urtea; Espainiaren eta Euskal AERen kasuan, berriz, 2001. urtea.

Año 2000, excepto para España y C. A de Euskadi que es el año 2001.

2005. urtea; Euskal AERen kasuan, berriz, 2006. urtea.

Año 2005, excepto para la C.A. de Euskadi que es el año 2006

Iturria: EIN, Eustat eta Eurostat. Housing Statistics in the EU 2004.

Fuente: INE, Eustat y Eurostat. Housing Statistics in the EU 2004.

2.2. Viviendas según su clase

Las viviendas, con carácter general, se clasifican en dos grupos: viviendas familiares y establecimientos colectivos. Dentro de las primeras se distinguen las viviendas principales, las viviendas secundarias y las viviendas desocupadas³. La tabla 3 presenta la distribución de las viviendas según su clase.

³ Vivienda familiar: Una vivienda familiar se considera principal cuando se utiliza todo el año o la mayor parte de él como residencia habitual de una o de varias personas y secundaria si se utiliza sólo parte del año. Se considera desocupada cuando, sin ser ruinoso ni estar en ninguna de las situaciones anteriores, se encuentra deshabitada habitualmente. Establecimiento colectivo: vivienda o edificio destinado a ser habitado por personas sometidas a una autoridad o régimen común, dependiente de una institución, económica o no (conventos, cuarteles, asilos, residencias de estudiantes, hoteles, pensiones, prisiones, etc.). Alojamiento: todo recinto que no responde totalmente al concepto de vivienda familiar por ser móvil semipermanente, improvisado o no concebido para ser utilizado con fines residenciales (garajes, bodegas, etc.) pero que, sin embargo, constituye la residencia principal y habitual de una o varias personas en el momento del censo.

2.2. Etxebizitzak, motaren arabera

Etxebizitzak, oro har, bi taldetan sailkatzen dira: famili etxebizitzak eta establezimendu kolektiboak. Lehenengo multzoan, etxebizitza nagusiak, bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak bereizten dira³. 3. taulak etxebizitzaren sailkapena erakusten du, motaren arabera.

³ Famili etxebizitza: Famili etxebizitza bat etxebizitza nagusia da urte osoan edo urtearen zatirik handiengan pertsona baten edo gehiagoren ohiko bizileku gisa erabiltzen denean, eta bigarren etxebizitza da urtearen zati batean bakarrik erabiltzen denean. Etxebizitza hutsa da aurri egoeran egon gabe eta aurreko egoeretan batean ere ez dagoenean inor bertan bizi ohi ez denean. Establezimendu kolektiboa: agintaritza edo araubide komun baten pean bizi diren pertsonentzako etxebizitza edo eraikina, erakunde baten mende-koa, ekonomikoa edo ez (komentuak, kuartelak, adinekoen egoitzak, ikasleen egoitzak, hotelak, ostatuak, espetxeak etab). Lojamendua: mugikorra eta erdi-iraunkorra izateagatik famili etxebizitza erabat ez den esparru oro, inprobisatua izan edo ez izan, bizileku gisa erabiltzeko egina dena (garajeak, upategiak etab) baina zentsuaren ondorioetarako pertsona baten edo gehiagoren bizileku nagusia eta ohikoa dena.

	1991		1996		2001		2006	
	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%
Euskal AE / C.A. de Euskadi	774.780		821.107		878.600		981.045	
Nagusia / Principal	629.054	81,2	682.496	83,1	747.491	85,1	808.417	82,4
Bigarrena / Secundaria	39.410	5,1	7.526	0,9	41.219	4,7	171.634	17,5
Hutsa / Desocupada	105.151	13,6	129.952	15,8	89.145	10,1	171.634	17,5
Establezimendu kolektiboa Establecimiento colectivo	1.165	0,2	1.133	0,1	745	0,1	994	0,1
Araba / Álava	105.883	100,0	111.453	100,0	122.464	100,0	145.970	100,0
Nagusia / Principal	81.793	77,2	92.068	82,6	102.470	83,7	115.411	79,1
Bigarrena / Secundaria	9.608	9,1	685	0,6	9.515	7,8	30.388	20,8
Hutsa / Desocupada	14.246	13,5	18.455	16,6	10.325	8,4	30.388	20,8
Establezimendu kolektiboa Establecimiento colectivo	236	0,2	245	0,2	154	0,1	171	0,1
Bizkaia	424.229	100,0	443.453	100,0	464.617	100,0	514.255	100,0
Nagusia / Principal	348.252	82,1	371.860	83,9	399.833	86,1	431.969	84,0
Bigarrena / Secundaria	19.131	4,5	4.420	1,0	18.603	4,0	81.817	15,9
Hutsa / Desocupada	56.303	13,3	66.688	15,0	45.818	9,9	81.817	15,9
Establezimendu kolektiboa Establecimiento colectivo	543	0,1	485	0,1	363	0,1	469	0,1
Gipuzkoa	244.668	100,0	266.201	100,0	291.519	100,0	320.820	100,0
Nagusia / Principal	199.009	81,3	218.568	82,1	245.188	84,1	261.037	81,4
Bigarrena / Secundaria	10.671	4,4	2.421	0,9	13.101	4,5	59.429	18,5
Hutsa / Desocupada	34.602	14,1	44.809	16,8	33.002	11,3	59.429	18,5
Establezimendu kolektiboa Establecimiento colectivo	386	0,2	403	0,2	228	0,1	354	0,1

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen 1991 eta 2001eko Zentsuak (PEZ); Biztanleriaren eta Etxebizitzen 1996 eta 2006ko Estatistikak (PEE).
Fuente: Eustat. Censos de Población y Viviendas (CPV) 1991 y 2001; Estadísticas de Población y Viviendas (EPV) 1996 y 2006.

De acuerdo con la EPV de 2006, del total de construcciones de la C.A. de Euskadi destinadas en todo o en parte a usos de alojamiento humano, 980.051 son viviendas familiares y 994 establecimientos colectivos. De entre las viviendas familiares, 808.417 (82,4%) son viviendas principales y el resto son viviendas secundarias y viviendas desocupadas. Por territorios históricos, Álava tiene un menor porcentaje de viviendas principales con un 79,1%, frente a Gipuzkoa y Bizkaia que poseen un 81,4% y un 84%, respectivamente. La EPV de 2006 no proporciona la desagregación de las viviendas secundarias y vacías, por lo que no es posible examinar, con estos datos, si se han producido en los últimos años cambios significativos en el peso relativo de cada tipo de viviendas.

El CPV de 2001 es la fuente de información más reciente que permite conocer la distribución completa de las viviendas familiares en el año 2001. En ese momento el número total de viviendas ascendía a 878.600, de las cuales 877.855 eran viviendas familiares y 745 establecimientos colectivos. Las viviendas familiares estaban compuestas por 747.491 (85,1%) viviendas principales, 41.219 (4,7%) viviendas secundarias y 89.145 (10,1%) viviendas desocupadas. Álava también destacaba, según los datos censales, por tener en su parque de viviendas una menor proporción de viviendas principales (83,7%) que el resto de los territorios. La mayor proporción de vivienda desocupada se encontraba en el parque de viviendas de Gipuzkoa con un 11,3%, frente a

2006ko PEEaren arabera, osorik edo zati batez gizakien lojamenduko erabileretarako Euskal AEko eraikuntza guztietatik, 980.051 famili etxebizitzak dira eta 994 establezimendu kolektiboak. Famili etxebizitzen artean, 808.417 (% 82,4) etxebizitza nagusiak dira eta gainerakoak bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak. Lurralde historikoen arabera, Arabak etxebizitza nagusien portzentajerik txikiena dauka (% 79,1), eta Gipuzkoak eta Bizkaiak % 81,4 eta % 84 dauzkate, hurrenez hurren. 2006ko PEEak ez ditu bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak bereizten. Horregatik, dauzkagun datuekin, ezin dugu aztertu azken urteetan etxebizitza mota bakoitzaren pisu erlatiboan aldaketa esanguratsurik gertatu den.

2001eko PEZ famili etxebizitzen 2001. urteko banaketa osoa ezagutzeko balio duen informazio iturri berriena da. Une horretan, etxebizitza kopurua 878.600 zen guztira. Horietatik 877.855 famili etxebizitzak ziren eta 745 establezimendu kolektiboak. Famili etxebizitzen artean, 747.491 (% 85,1) etxebizitza nagusiak ziren, 41.219 (% 4,7) bigarren etxebizitzak, eta 89.145 (% 10,1) etxebizitza hutsak. Arabaren beste ezauzgarri bat, zentsuko datuen arabera, etxebizitza-parkean gainerako lurraldeek baino etxebizitza nagusien proportzio txikiena izatea da (% 83,7). Etxebizitza hutsen proportzio handiena Gipuzkoako etxebizitza-parkean zegoen (% 11,3). Araban, berriz, % 8,4koa zen eta Bizkaian, % 9,9. Bigarren etxebizitzak pisu handiagoa zeukan Arabako etxebizitza-parkean,

Álava y Bizkaia que disponían de un 8,4% y un 9,9%, respectivamente. La vivienda secundaria tenía mayor peso en el parque de viviendas de Álava con un 7,8%, mientras que en Bizkaia era del 4% y en Gipuzkoa del 4,5% (2001)⁴.

El análisis comparativo con los datos censales de 2001 proporcionados por el INE para el resto de Comunidades Autónomas (gráfico 2) revela que la C.A. de Euskadi tiene el mayor porcentaje de viviendas principales (85,1%). Esta proporción es significativamente superior a la que presentan otras comunidades como Madrid (75,6%), Asturias (74,3%) o Navarra (72,9%).


% 7,8arekin. Bizkaian % 4koa zen eta Gipuzkoan % 4,5 (2001)⁴.

EINek gainerako autonomi erkidegoetarako 2001. urterako emandako zentsu-datuen analisi konparatiboak (2. grafikoa) erakusten du Euskal AEn dagoela etxebizitza nagusien portzentajerik handiena (% 85,1). Proportzio hori askoz ere handiagoa da beste erkidego batzuen bano: Madril (% 75,6), Asturias (% 74,3) edo Nafarroa (% 72,9).

Viviendas principales, secundarias y desocupadas por Comunidades Autónomas. 2001 (%)

2

Etxebizitza nagusiak, bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak autonomi erkidegoen arabera. 2001 (%)



Iturria: EIN eta Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua, 2001. Fuente: INE y Eustat. Censo de Población y Viviendas 2001.

⁴ La Estadística de la Vivienda Vacía de la que nos ocuparemos en el apartado 4.2 proporciona información que contribuye a conocer la evolución de la vivienda secundaria y de la vivienda desocupada en los años más recientes.

⁴ Etxebizitza Hutsen Estatistikan (4.2 atalean aztertuko dugu), azken urteetan bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak izan duten eboluzioa ezagutzen laguntzeko informazioa ematen da.

La explicación de estas diferencias se encuentra, en gran parte, en la dinámica de la segunda vivienda. En el mercado español de la vivienda resulta especialmente pertinente distinguir entre la vivienda primaria (o por razón de uso) y la segunda vivienda (o por razón de descanso).

La expansión de la segunda vivienda ha sido muy significativa en España durante la última década. Los motivos que han contribuido a incrementar la adquisición de segundas residencias han sido muy diversos. Razones demográficas, culturales, sociales y económicas explican en gran parte este comportamiento. La reducción de la jornada laboral y, por tanto, el incremento del tiempo de ocio y el aumento de la renta, más una mayor tendencia a la movilidad de la población española, son los factores que han favorecido la demanda de segundas residencias. A ellos hay que sumar la situación de bonanza económica que se ha vivido en años previos al estallido de la crisis económica. Todo ello sin olvidar un factor cultural que resulta especialmente relevante para entender las diferencias entre el mercado de vivienda en España y en otros países de la Unión Europea. El tamaño medio de las viviendas en España tiende a ser más pequeño que en otros países europeos. Por contra, los hogares españoles cuando experimentan aumentos en sus rentas tienden a adquirir una segunda vivienda en el campo o en la costa, en lugar de adquirir una vivienda principal de mayor tamaño (Esteban y Altuzarra, 2007).

Este auge de la segunda vivienda no se ha producido de manera homogénea por toda la geografía española. El porcentaje de vivienda secundaria que registra la C.A. de Euskadi es, exceptuando el caso de Ceuta y Melilla, el más bajo con un 4,7%. Este valor contrasta con el que exhiben otras comunidades como Castilla-León (22,9%), Castilla-La Mancha (23,2%) o la Comunidad Valenciana (22,1%). La proporción de viviendas desocupadas (10,2%) también es la menor que se registra en España y que dista de la que exhiben Extremadura (18%), la Comunidad Valenciana (17,4%) o las Islas Baleares (17%). La expansión de la segunda vivienda es particularmente significativa en los años posteriores a 2001, especialmente en las zonas costeras y en las áreas próximas a las grandes ciudades.

2.3. La antigüedad del parque de viviendas

El modelo de desarrollo residencial de la C.A. de Euskadi guarda una estrecha relación con los momentos de despegue económico del territorio. La tabla 4 muestra, con datos de la EPV de 2006, que el 48,6% del total de viviendas fueron construidas entre 1960 y 1980. Esta expansión coincide con la denominada etapa desarrollista, caracterizada por un importante crecimiento demográfico y urbano de la C.A. de Euskadi que coincide con el despegue económico. Desde el año 1980 hasta 2006 se construyeron el 27% del total, esto es, casi una de cada tres viviendas. De los años comprendidos entre 1950 y 1960 queda el 11,7% del parque de viviendas. De la década de los años 40 se conserva el 3% y de los años anteriores a 1940 el 9,6% de las viviendas.

Este modelo de expansión residencial se reproduce de forma bastante similar en los tres territorios históricos. En Álava, no obstante, y a diferencia de lo que sucede en Bizkaia y Gipuzkoa, se produce un crecimiento de la construcción de viviendas más acelerado a partir de los años 90, esto es, durante la última etapa de expansión inmobiliaria. Una de cada cuatro viviendas en Álava se construyeron a partir de la década de los 90, mientras que en Bizkaia fueron una de cada seis y en Gipuzkoa una de cada cinco.

Ezberdintasun horien azalpena, zati handi batean, bigarren etxebizitzaren dinamikan daude. Espainiako etxebizitzaren merkatuan, oso egokia da etxebizitza nagusia (edo erabilera arrazoia) eta bigarren etxebizitza (edo atsedeen hartzeko arrazoia) bereiztea.

Bigarren etxebizitzaren hedapena oso esanguratsua izan da Espainian azken hamarkadan. Bigarren etxebizitzak eskuratzeko bultzatu duten arrazoiak askotarikoak izan dira. Arrazoi demografiko, kultural, sozial eta ekonomikoek portaera hori azaltzen dute, zati batez bada ere. Lansaioaren murrizpena eta, horrenbestez, aisialdiaren luzapena, errentaren gehikuntza, eta espainiar biztanleriaren mugikortasunerako joera handiagoa bigarren etxebizitzaren eskaera mesedetu duten faktorerako dira. Horri guztiari krisi ekonomikoa sortu arte bizi izan den oparoaldia gehitu behar diogu. Gainera kultur faktore bat dago, Espainiako etxebizitza-merkatua eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetakoa bereizteko oso lagungarria dena. Etxebizitzaren batez besteko tamainak Europako beste herrialde batzuetako baino txikiagoa izateko joera dauka. Aitzitik, espainiar familiek, beren errentetan gehikuntzak izaten dituztenean, bigarren etxebizitzan landan edo kostaldean bigarren etxebizitza erosten dute, etxebizitza nagusi handiagoa erosi beharrean (Esteban eta Altuzarra, 2007).

Bigarren etxebizitzaren gorakada hau ez da berdin gertatu espainiar geografian osoan. Euskal AEk daukan bigarren etxebizitzaren portzentajea, Ceuta eta Melillaren kasuak baztertua, txikiena da, % 4,7arekin. Balio hau oso txikia da beste erkidego batzuen aldean: Gaztela eta Leonen % 22,9, Gaztela-Mantxan % 23,2 eta Valentziar Komunitatean % 22,1. Etxebizitza hutsen proportzioa ere (% 10,2) Espainian dagoen txikiena da, eta oso urrun dago Extremadurakotik (% 18), Valentziar Komunitatekotik (% 17,4) eta Balear Uharteetatik (% 17). Bigarren etxebizitzaren hedapena bereziki esanguratsua da 2001. urtearen ondoko urteetan, batez ere kostaldean eta hiri handietatik gertu.

2.3. Etxebizitza-parkearen antzinatasuna

Euskal AEko etxebizitza-garapenaren ereduak harreman handia dauka lurraldeko aurrerapen ekonomikoko uneeekin. 4. taulak erakusten digu 2006ko PEEaren datuekin, etxebizitzaren % 48,6 1960 eta 1980. urteen artean eraiki zirela. Hedapen hau bat dator aro desarrollista delakoarekin. Garai hartako ezaugarria Euskal AEko demografian eta hirietan hazkuntza handia izan zen, eta garai horretan ere gorakada ekonomikoa gertatu zen. 1980. urtetik 2006. urtera arte etxebizitza guztien % 27 eraiki ziren, hau da, hiru etxebizitzatik ia bat. 1959 eta 1960. urteen artean, etxebizitza-parkearen % 11,7 geratzen da. 40ko hamarkadatik % 3a kontserbatzen da, eta 1940. urtearen aurreko urteetan, etxebizitzaren % 9,6.

Bizilekuen hedapeneko eredu hau nahiko modu antzekoan gertatzen da hiru lurralde historikoetan. Araban, ordea, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, etxebizitzaren eraikuntza azkarago gehitu zen 90eko hamarkadatik aurrera, hau da, higiezinaren zabalpenaren aroan. Arabako lau etxebizitzatik bat 90eko hamarkadatik aurrera eraiki zen. Bizkaian seitek bat eta Gipuzkoan bostetik bat izan ziren.

	Euskal AE C.A. de Euskadi	Araba / Aláva	Bizkaia	Gipuzkoa
GUZTIRA / TOTAL	980.051	145.799	513.786	320.466
≤ 1900	39.410	6.012	19.125	14.273
1901-1940	54.694	3.036	30.231	21.427
1941-1950	29.783	3.194	16.454	10.135
1951-1960	114.965	9.883	71.526	33.556
1961-1970	246.574	29.514	141.750	75.310
1971-1980	229.612	37.243	115.479	76.890
1981-1990	79.410	20.719	34.669	24.022
1991-2000	104.991	18.848	46.688	39.455
≥ 2001	80.612	17.350	37.864	25.398
Antzintasuna batez beste Antigüedad media	37,3	32,1	38,5	37,8

Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika, 2006.

Fuente: Eustat. Estadística de Población y Viviendas 2006.

Por esta razón, Álava destaca por tener el parque inmobiliario más joven, con una media de 32,1 años, seguido de Gipuzkoa (37,8 años de media) y de Bizkaia (38,5 años de media). La causa de estas diferencias se encuentra en el proceso de desarrollo tardío que se produce en Álava, que implicó crecimientos en el parque de viviendas posterior a los registrados en los otros territorios históricos (Rodríguez Marcos, 2001).

El gráfico 3 presenta información sobre la antigüedad del parque de viviendas de las distintas Comunidades Autónomas. Madrid, Cataluña y la Comunidad Valenciana son las que presentan un modelo de expansión residencial más similar al de la C.A. de Euskadi. En estas comunidades más del 60% de la viviendas familiares se construyeron entre 1940 y 1980, periodo en el que se concentra el desarrollo económico en estas regiones y que originó un intenso proceso de migración.

A partir de la década de los 80, despegó de forma significativa la expansión del parque de viviendas de Andalucía, Murcia y Canarias como consecuencia del mayor crecimiento relativo de la demanda de segunda vivienda por razones de descanso o inversión en estos destinos. Los parques inmobiliarios más envejecidos se encuentran en Extremadura, Castilla-León, Galicia y La Rioja, con cerca del 20% de viviendas construidas con anterioridad a 1940. Se trata de comunidades de tradición agrícola (Rodríguez Marcos, 2001) y origen de salida de flujos migratorios.


La C.A. de Euskadi presenta la proporción más baja de viviendas construidas en la década de los 90. Una posible razón es que ha sido una de las regiones con mayor renta per cápita y demandante de segunda vivienda en otras comunidades. Además, la C.A. de Euskadi ha experimentado una pérdida relativa de población en comparación con otras Comunidades Autónomas que han registrado incrementos positivos de población.

Horregatik, Araba higiezin-parkerik gazteena dauka, 32,1 urtekoa batez beste. Gero Gipuzkoa dator (37,8 urte batez beste) eta azkenik Bizkaia (38,5 urte batez beste). Ezberdintasun horien kausa Araban gertatu den garapen berantiarreko prozesuan dago. Prozesu horrek ekarri zuen etxebizitza-parkean izandako hazkuntza gainerako lurralde historikoetan izandakoa baino beranduago gertatzea (Rodríguez Marcos, 2001).

3. grafikoak autonomi erkidegoetako etxebizitza-parkeen antzintasunari buruzko informazioa erakusten du. Madril, Katalunia eta Valentziar Komunitateko bizilekuen hedapen-ereduak dira Euskal AEnaren antzekoenak. Erkidego horietan, famili etxebizitzaren % 60 baino gehiago 1940 eta 1980. urteen artean eraiki ziren. Leku horietako garapen ekonomikoa, hain zuzen ere, denboraldi horretan izan zen bizien, eta migrazio prozesu handia ekarri zuen.

80ko hamarkadatik aurrera, Andaluzia, Murtzia eta Kanariar Uharteetako etxebizitza-parkearen hedapena nabarmen azkartu zen, bigarren etxebizitzaren eskaeraren hazkuntza erlatiboa handiagoa zelako, destino horiek atsedenerako edo inbertitzeko aukeratu zirelako. Higiezin-parkerik zahartuenak Extremaduran, Gaztela eta Leonen, Galizian eta Errioxan daude; erkidego horietan, eraikitako etxebizitzaren % 20 1940. urtea baino lehen eraiki ziren. Nekazaritza tradizioa daukaten erkidegoak dira (Rodríguez Marcos, 2001) eta haietatik migrazio-fluxuak irten dira.


Euskal AEk 90eko hamarkadan eraikitako etxebizitza-proporziorik txikiena dauka. Horren balizko arrazoi bat izan daiteke per capita errenta handiena daukaten erkidegoetako bat dela eta bigarren etxebizitza beste erkidego batzuetan eskatzen duela. Gainera, Euskal AEk biztanleria apur bat galdu du beste autonomi erkidego batzuen aldean, biztanleri gehikuntza positiboak izan dutenak.



Iturria: EIN eta Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua, 2001.
Fuente: INE y Eustat. Censo de Población y Viviendas 2001.

Con respecto a los datos disponibles de los países de la UE, el gráfico 4 muestra que Dinamarca es el país que tiene el parque de viviendas más envejecido con un 40% de las viviendas construidas antes de 1945, seguido de Reino Unido, Francia y Bélgica con un 34%, 33,2% y 31,5%, respectivamente. En la posición opuesta se encuentran Chipre, Irlanda y Portugal, con un 54,5%, 52,5% y 44,4%, respectivamente, del parque de viviendas construido a partir de los años 80. Parece lógico pensar que en estos países se haya producido una renovación de un parque inmobiliario envejecido y/o incluso que son países que han experimentado un desarrollo más tardío y que, por tanto, los flujos migratorios hacia las ciudades han sido más tardíos que en los países del norte.

EBko herrialdeetan dauden datuei dagokienez, 4. grafikoak erakusten du Danimarka dela etxebizitza-parke zaharrena duen herrialdea: etxebizitzaren % 40 1945. urtea baino lehen eraiki zen. Haren atzetik Erresuma Batua, Frantzia eta Belgika datoz, % 34, % 33,2 eta % 31,5, hurrenez hurren. Aurkako kasuan daude Zipre, Irlanda eta Portugal: etxebizitzaren % 54,5, % 52,5 eta % 44,4 (hurrenez hurren) 80ko hamarkadatik aurrera eraiki ziren. Logikoa dirudi pentsatzea herrialde horietan higiezin-parke zaharkitua berriztatu dela edota herrialde horiek beranduago garatu direla eta, horregatik, hirietarako migrazio-fluxuak beranduago gertatu direla iparraldeko herrialdeetan baino.



Iturria: Eurostat. Housing Statistics in the EU 2010.
Fuente: Eurostat. Housing Statistics in the EU 2010.

⁵ Varios años censales según países: Austria, 2004; Bélgica, 2004; Chipre, 2001; Rep. Checa, 2005; Dinamarca, 2003; Estonia, 2003; Finlandia, 2002; Francia, 2002; Alemania, 2002; Grecia, 2001; Hungría, 2005; Irlanda, 2002; Italia, 2001; Letonia, 2002; Lituania, 2002; Luxemburgo, 2004; Malta, 2002; Holanda, 2005; Polonia, 2002; Portugal, 2001; Eslovaquia, 2001; Eslovenia, 2004; España, 2001; Suecia, 2005; Reino Unido, 2004.

⁵ Zenbait zentsu-urte, herrialdeen arabera: Austria, 2004; Belgika, 2004; Zipre, 2001; Txekiar Errep., 2005; Danimarka, 2003; Estonia, 2003; Finlandia, 2002; Frantzia, 2002; Alemania, 2002; Grezia, 2001; Hungaria, 2005; Irlanda, 2002; Italia, 2001; Letonia, 2002; Lituania, 2002; Luxenburgo, 2004; Malta, 2002; Holanda, 2005; Polonia, 2002; Portugal, 2001; Eslovakia, 2001; Eslovenia, 2004; Espainia, 2001; Suedia, 2005; Erresuma Batua, 2004.

3. CARACTERÍSTICAS DE LAS VIVIENDAS FAMILIARES

En este apartado se realiza una caracterización de las viviendas familiares de la C.A. de Euskadi atendiendo al número de viviendas existentes por edificio, a la superficie útil y al número de habitaciones de las viviendas. Estos indicadores proporcionan información, entre otras cosas, acerca de los usos residenciales que predominan (plurifamiliar o unifamiliar) en el territorio.

3.1. La verticalidad. Número de viviendas por edificio

El modelo de residencia en la C.A. de Euskadi continúa siendo plurifamiliar. Ya se ha apuntado que no es de esperar que se produzcan modificaciones sustanciales en las características estructurales de las viviendas en periodos cortos de tiempo. La tabla 5 presenta el porcentaje de viviendas familiares por número de viviendas de los edificios en la C.A. de Euskadi. Tan sólo un 8,2% de las viviendas familiares ocupaban un único edificio en el año 2006. Álava presentaba una proporción significativamente superior de viviendas unifamiliares, alcanzando el 14,6%.

